

Chile-ko arazoak eta gu

Alderdi, 286. zk., 1973-08/09.

Chilen egun oietan gertatu denak ekarri digu pentsagai sakon bat.

Demokrazi bidez agintera igo den gobernu baten aurka jaiki da militarra Chilen, eta orain dela 37 urte berdintsu gertatu zen emen; komunismoa izan da aitzaki Chilen, eta aitzaki bera jarri zuten emen; diruak eta pribilegioak agindu zuten emen, eta aginte bera asi da ego-amerikako erri onetan ere nabarmentzen; militarrek laixtr erria demokrazi bidean jarriko dutelaren aginduak ari dira egiten Chilen, eta emen baramakizkigu 37 urte luze argizpi bat noiz ikusiko.

Adibideak ez dira, noski, gauz berdinak; Chilen gertatu berria denak ez du pausoz pauso emen zer gertatu zitzaigunaren berdina izan bear. Baina elkar uztarritzen dituzten punto oiek zer ikusi nabarmena badutela inork ezin dezake uka.

Chileko ezker-gorriak *bere* erreboluzioa egiteko asmoak zituela ez da osorik gezurra izango, eta erreboluzio ori eginda gero beste inori itzik emateko asmorik ez zuela esaten dutenak ere izango dute arrazoi zati bat. Bai Espainian 1936-an eta baita orain Chilen ere, izango ziran demokrazi "burgesa" sustraietatik atera eta diktadura bat jartzeko asmoak egiztatzeko azpi-janetan zebiltzatenak. Baina ez Chilen orain eta ez Espainian leen, orretan ari zirenak ez zuten erria menderatzeko bear zuten inbat indar: Chilen komunistak %13 besterik ez bait ziren, eta Allende Lendarritzara eraman zutenak elkar eginda ere ez bait ziren %40-ra irixten, eta Espainian 1936-an komunisten eta bere antzekoak ez zuten erria menderatzeko bear zuten indarrik inolatan erakutsi.

Demokrazi-bideak arrixko oiek ba ditu, noski, baina arrixku oiei erantzuteko indarrak xixtima bertan dauzka, eta xixtima orretatik kanpoko den beste biderik ezin lezake, beretzat errespetoa gorde nai badu, *indarra* lege duen inongandik artu.

Beste aldetik, kontuan artu bear dugu, noski, Chileko egoera oso larria zela.

Baina, zerk bultzata eta nolatan iritxi zen Chileko gobernu au iritxi zer larritasun orretara? Ez aal da, agintariak egin dituzten utsez kanpo, eskuiko manejurik ibili?

Orain dela ogei eta emezazpi urte, emen erriaren atzetik egin zirenak asko eta gaiztoak izan ziren; erriaren eta fedearen izena aitzakitzat artu eta bere interesak defenditzeko lanak egiten aritu ziren. Au ixtoriarako garbi geratu da.

Chilen gertatu denaren berri zeatzak jakin artean denbora pasako da, eta orduan bakoitzari berea eman beariko zaio justiziz, baina orretara iritxi artean, gogora gaitezen gertatukoaren antza duten gertakizun asko gerta dela Chilen orain, eta guk, euskaldun demokrata geranok, ezin dugula erriak aukeratua izan den gobernu bat militarrek tiroz akatzea onartu, egitan txarretsi baizik.

Chilen euskaldun asko eta askok arkitu du etxe-babesa eta ogia, eta orain bertan gure jatorriko eta emengo matxinadak uxatutako asko bizi da an, Ameriketako beste erri askotan bezala. Chileko erria maite du gure erriak. lendarriaren Allende abizena ere noizpait gure erritik irtena da. Gertakizun odoltsu oien ondoren gure kezka au erakutsi

bear dugu, eta askatasunaren aurka berriz ere militarrek eman duten pauso negargarri
an salatu eta gaitzetsi.